RAMÓN Y CAJAL DEIALDIA 2026

ESKATZAILEENTZAKO INFORMAZIOA

LAGUNTZEN EZAUGARRIAK:

Deialdian **350** laguntza inguru aurkeztea aurreikusten da.

Honako hauek dira deialdi honetako **aldaketak**, 2025eko Ramón y Cajal deialdiarekin alderatuta:

- I+G+b arloko **proiektu bat gauzatzeko finantzaketa** eskainiko da (kontratuaren baterako finantzaketaz gain). Gutxien dela doktorego aurreko ikertzaile bat lau urtez kontratatzeko adinako zuzkidura emango da.
- Eskaeraren ebaluazioa proposamen zientifikoan zentratuko da, eta **elkarrizketa** bat barne hartuko du.
- **ERCren** (Europako Ikerketa Kontseilua) deialdietan parte hartzeko **pizgarria**.
- Ikertzailea **egonkortzeko pizgarria** erakunde hartzaileentzat.
- **Ikerketa sendotzeko deialdia bertan behera** utziko da, haren helburuak RyC deialdi berrian barne hartuko direlarik.
- **Talentua erakartzeko laguntza** espezifikoa **bertan behera** utziko da.
- **R3 ziurtagiria emango zaie** eskatzaileei, baldin eta, eskaerak aurkezteko epearen amaieran, hiru urte edo gehiagoko esperientzia egiaztatzen badute doktorego osteko ikerkuntzan.

Kontratuen ezaugarriak:

Kontratuek **5 urteko indarraldia** izango dute gehienez, eta aurrerantzean ez dira orain arteko deialdietan ezarri izan diren soldata fase biak bereiziko.

EHUn hasten diren interesdunek EHUko irakasle-ikertzaileen Negoziazio Mahaiaren 2021eko abenduaren 9ko Akordioan adierazitako ordainsaria jasoko dute (UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen Negoziazio Mahaiaren Akordioa, doktore aurreko kontratua eta Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemara sartzeko kontratua duten aldi baterako ikertzaileen araudia egokitzeari buruzkoa, EHUko Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an berretsitakoa).

I+G arloko zentroek horrelako akordiorik formalizatzen badute, bermatu beharko da bete nahi diren plazei dagokien profildun lanpostu iraunkorrak sortzeko konpromisoa hartuko dutela, betiere bat etorrita indarreko legediarekin, antolaketa eta funtzionamendurako arauekin eta 28.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Eskatzaileen betekizunak:

Eskatzaileek bete egin beharko dituzte deialdiaren oinarrietako **6. eta 18.5 artikuluetan** xedatutako baldintzak.

Eskaerak aurkezteko epea:

Epe bakarra egongo da hala eskatzaileentzat nola EHUrentzat: 2026ko **azaroaren 10etik abenduaren 10era** (14:00ak arte).

Ikertzaileek eskaerak aurkeztea:

Ikertzaileek eta I+G zentroek zeinek bere aldetik aurkeztu beharko dute eskaera. Hori horrela, eskaera egin nahi duten pertsonek honako urrats hauek bete beharko dituzte:

1. Eskatzaileen Erregistro Bateratuaren (RUS) "Ikertzaile Erregistroa" atalean izena ematea: HEMEN
2. Eskaera inprimakia betetzea aplikazioan (2026ko azaroaren 10etik aurrera egongo da erabilgarri).
3. Eskaera erregistratzea, deialdiaren 12. artikuluan azaldutako bideetakoren bat erabiliz.

GARRANTZITSUA:
Hautagaiek aurkeztutako eskaeren kasuan, ***ez da beharrezkoa izango EHUren legezko ordezkariak berau onartzerik***.

Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioarekin (MCIU) harremanetan jartzeko:

Eskaera egiten duten ikertzaileek MCIUren esteka honen bidez egin ahal izango dituzte kontsultak: https://www.aei.gob.es/eu/contactanos/formulario-contacto

Informazio gehiago hemen: Esteka